



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Atera bideetara”

2023ko urriaren 15a
Urteko 28. igandea (A)

Mateo 22, 1-14

Jesus berriro parabola-bidez hitz egiten hasi zitzaian: “Jainkoaren erregetzarekin, bere semearen ezteiak ospatzen zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera. Baina haiek ez zuten etorri nahi izan. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, mandatu honekin: ‘Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, dena dago prest. Zatozte ezteietara’. Baina gonbidatuek ez zuten jaramonik egin: bata bere sorora joan zen, bestea bere negoziotara, eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten. Sumindu egin zen erregea eta, soldaduak bidaliz, hil egin zituen giza hiltzaile haiek eta su eman herriari. Gero, bere morroiei esan zien: ‘Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak’. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkituriko guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen. Erregeak, bazkaltiarrek ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi zuen, eta esan zion: ‘Adiskidea, nola sartu zara hemen eztei-jantzirik gabe?’ Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariari esan zien orduan: ‘Lot ezazue hanka eta esku, eta bota kanpora, ilunpetara. Negarra eta hortz-karraska izango dira han’. Zeren gehiago baitira deituak aukeratuak baino”.

Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak.

BIDEGURUTZEETAN

José Antonio Pagola

Jesusek oso ondo ezagutzen zuen bere garaiko laborarien bizitza gogor eta aspergarria. Bazekien nola egon ohi ziren larunbata iritsi zain, lanetik «libre» izateko. Jaietan eta ezteietan nola gozaten zuten ikusten zuen. Zer esperientzia gozoagorik jende harentzat jai-otordu batera gonbidatua izatea baino? Edo, jai egiteko, auzokoekin mahai inguruan eseri ahal izatea baino?

Jainkoarekiko bere esperientziak eraginda, modu harrigarrian hasi zitzaian Jesus hitz egiten. Bizitza ez datza soilik lan eta ardura hauek bizitzean, neke eta atsekabe hauek bizitzean. Jainkoa azken jai bat prestatzen ari da bere seme-alaba guztientzat. Guztiak ikusi nahi ditu bere inguruan eseririk, mahai baten inguruan, bizitza guztiz zorionekoaz betiko gozatuz.

Jesusek, ordea, ez zuen aski Jainkoaz horrela hitz egitearekin. Berak nahi zituen gonbidatu guztiak bere mahaira; are gehiago, bekatariekin eta zokoratuekin ere eseri ohi zen otordurako. Berak nahi zuen izan guztientzat azken jai hartarako Jainkoaren gonbit handi. Gonbita pozik hartzen ikusi nahi zituen eta guztien artean giro adiskidetsuagoa eta ahaidezkoagoa sortzen, azken jai hartarako egoki presta zitezten.

Zertan da, ordea, gonbit hori? Nork hots egiten du? Nork entzuten? Non entzun daiteke jai horren berri? Geure ongizatearekin konforme, berehalako gure onura ez den guztiari belarriak itxirik, ez dugu nabari Jainkoaren inolako beharrik. Ez ote gara ohitzen ari azken esperantza baten premiarik gabe bizitzen?

Mateoren parabolan, lur-jabeek eta merkatariek gonbitari uko egin diotenean, erregeak diotse morroiei: «Zoazte bidegurutzeetara, eta gonbidatu ezteietara aurkituko dituzuen guztiak». Inoiz entzun ez den bezalakoa da agindu hori, baina Jesusen sentiera iradokitzen du. Hainbat ukapen, gutxiespen eta guzti, ospatuko da jai. Jainkoa ez da aldatu. Gonbidatzen jarraitu behar da.

Baina orain gauzarik hoberena «bidegurutzeetara joatea» da, haietan ibiliko baita hainbat eta hainbat jende bide-galdu, lurrik eta negoziarik gabea, inoiz inork ezertara gonbidatu ez duena. Beste inork baino hobeto uler dezakete haiek gonbita. Haiek gogoraraz diezagukete Jainkoaz dugun azken premia. Haiek ager diezagukete esperantza.